

**“GURE BERBIE EUSKERAZ”
HITZARMENGINTZA EGITASMOA-2016**

-----O-----

BALORAZIOA ETA JUSTIFIKAZIOA



AURKIBIDEA:

1.- SARRERA

2.- HELBURUAK.

3.- EGITASMOAREN OINARRIAK.

- 3.1.- 2016an bete diren zeregin nagusiak
- 3.2.- Hitzarmenkide berriak eta zerbitzu iraunkorra
- 3.3.- Jarduerak nork burutu dituen

4.- BALORAZIO KUANTITATIBOA ETA KUALITATIBOA

5.- KRONOGRAMA.

6.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

7.- AURREKONTUA-GASTUAK

Eranskinak:

- 1. **eranskina.**- Artez enpresa memoria 2016
- 2. **eranskina.**- Enpresetako Euskara Planetarako diru laguntzen esleipena (2016koa).
- 3. **eranskina.**- Berripapera - 2016
- 4. **eranskina.**- Azpi-ekintzetarako erabilitako materiala
- 5. **eranskina.**- Gastuen frogagiriak

1- SARRERA

1993.ean eratu, orduan hasiera eman eta hiru urteko lehenengo fase batean garatzeko taxutu zen egitasmoari ekin diogu zintzo gaur arte. Beraz, hamazortzi urte bete ditugu merkataritza arloa jorratzen, urteak pasatu ahala lan-sistema bat finkatu eta hobetzea ekarri diguna eta bidean beste esparru batzuetan (enpresetan, elkarteetan) ekiten hasteko eredugarri izan duguna.

2001ean merkataritza arlorakoa bideratuta ikusten genuen neurrian, **enpresa mundua lantzen hastea beharrezko jo genuen**, hurrengo urteetarako esparru horrekiko jokabideak finkatu asmoz. Bidea errazago egin zaigu enpresa munduan, arestian esan bezala merkataritzan urteetan taxutu eta egokitutako eredua izan dugulako.

Aipatu behar merkataritza eta enpresetara zuzendutako kanpainaren segimendu lanarekin lortu nahi dugun helburu nagusia: merkataritza eta enpresetako esparruan jokoan sartzen diren guztiekin harremanak landu eta ahal den neurrian merkatal zirkulu osoa kanpainan integratu, hau da, hornitzaile, saltzaile eta erosleekin (batez ere erakunde publiko, kirol eta kultur elkarte eta ikastetxeekin ditugun loturei probetxua aterez) harremanak lantzea.

Bestalde, kanpaina honen bitartez, urte bakoitzean aurreikusi egiten da hitzarmenkide berriak erakartzea, sinatu bakoien artean ereduzkoak hautatu eta harreman zuzena landuz. Gero ere, zerbitzua eskaintzerakoan, harreman pertsonala da kanpainaren zutabe nagusi. Esan behar, hitzarmenkide kopuruak gora egiten duela urtetik urtera, azken lau urteetan merkataritzan eta enpresa esparruan atea itxi dutenak salbu; 2014an 27 saltoki berri eta 2015ean hiru.

2015ean gauza berri bati eutsi zaio. Alkarbideren magalean “Beharsarea” proiektua eratu zen, arlo sozioekonomikoari lotuta; langabezian daudenentzat plataforma edo webgune bat garatu, lan eskabideak eta lan eskaintzak plazaratu eta kontaktuan jartzeko.

2016an izandako lorpenen artean, hurrengoak nabarmendu behar dira:

- Gernikako Merkataritza elkartuak elkarte eta Udalaren arteko hitzarmena sinatu da, elkarlanean normalizazioari begirako lana garatzeko eta merkataritza esparruan udalerrri mailako bilgunean guztiek parte hartzea lortuz.
- Ostalaritzari bultzada handia eman zaio, hitzarmenkide berriak egin direlako eta kanpaina puntualak ere bideratzea posible izan delako.

2.- HELBURUAK

Indarrean dagoen 2014-2017 eperako Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren arabera jokatzuz, 2016rako moldatu zen Kudeaketa Planean aintzat hartu diren esparru, neurri eta ekintzak izan dira orientabide egitasmoa honetara:

- **2. Helburu estrategikoa.- Euskararen erabilera:** euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza.

Esparrua:

6. Arlo sozio-ekonomikoa

6.1. Euskara planak zabaltzeko babesa eta laguntza ematen jarraitzea eta dirulaguntzen sistema etengabe hobetzea (Toki erakundeak)

6.1.4. Enpresa txiki eta ertainetan planak garatzeko aukerak eskaini eta areagotzea

- 6.1.4.1.- HITZARGUNE hitzarmengintza kanpaina garatu enpresa handi eta ertainetan
- 6.1.4.3.- Bai Euskarari ziurtagiriaren elkartarekin hitzarmena berriztatu elkarlanerako
- 6.1.4.2.- HITZARGUNE hitzarmengintza kanpaina garatu merkataritzan eta ostalaritzan

6.8. Euskara enpresa munduan erabiltzeari prestigioa ematea

6.8.1. Sustapen eta komunikazio ekintzak lantzea (kanpainak, esku-orriak, bisitak, hitzaldiak) hizkuntza kudeaketa egoki batek dakartzan onurak azpimarratzeko eta euskara kalitatearekin, lehiakortasunarekin eta ongi-izatearekin identifikatzeko

- 6.8.1.1.- Banan-banakako elkarriketak egin merkataria eta ostalariekin paisaia linguistikoak euskararen erabileran duen eraginaz

Esparrua:

7. Aisia eta kirola



7.8. Kirolaren esparruko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera sendotzea (Toki erakundeak)

7.8.1. Euskal Autonomia Erkidegoko nahiz lurraldeetako federazioetako jarduna euskalduntzeko plangintza egitea

- 7.8.1.1.- Alkarbideko kirol lan-mahaiaren bidez, kirol federazioetan eragiteko bideak jorratu

7.8.2. Herri edota hirietan kirol-arloan diharduten kolektiboekin lankidetzaprotokoloak bultzatzea, entrenatzaile, begirale, irakasle, prestatzaile, arbitro eta buruzagien hizkuntza-trebakuntza antolatze eta kirol-ekintzetan euskararen presentzia bermatzeko uneoro

- 7.8.2.1.- Hitzarmena sinatu herriko Klub eta kirol taldeekin, gabeziak identifikatu eta elkarrekin normalizazioa lantzeko

- Helburu estrategikoa.- Helburu guztietako zehar lerroak.

Esparrua:

14. Sentsibilizazioa eta motibazioa

14.7. Aisia eta kirola (Toki erakundeak)

14.7.1. Aisialdi taldeekiko lankidetzak bultzatzea, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko

- 14.7.1.2.- Hitzarmen sinatu aisialdi taldeekin, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin jorratzeko

3.- EGITASMOAREN GARAPENA

3.1.- 2016an bete diren zeregin nagusiak:

- **Hizkuntza tailerra (“Zelan idatzi”)** eskaini elkartegintzako hitzarmen-kideei, azken hiru urteetan prestatutako materiala oinarri.
- **Ikastalde bereziak eskaini** merkataritza eta ostalaritzakoei. Talde berezirik ez da sortu, baina euskaltegietara bideratu dira.
- Egindako inkestaren arabera, **hitzarmen-kide berriak egin dira** gogoaz azaldu dutenekin eta zonaldeka detektatu diren hutsuneetan gehiago eraginda. Aurreko urteetako dinamikari astindua: azken bi urteetan 40 denda berri.



- **Hizkuntza aldaketa eta egokipenak** urtean zehar:

Merkataritza	64 Merkealdiko kartel 10 Eskaintza berezi 184 errotulu 55 itzulpen
Enpresa txikiak	14 itzulpen 6 errotulu
Alkarteak	43 itzulpen

- **Hizkuntza indizea neurtu** (HINAT neurgailua) kanpainako hiru ataletan (merkataritza, enpresa, elkartegintza). Hitzarmenkide berri asko sartu direnez, ezin da alde zuretik erabileran igoerarik izango den aurreikusitako, erabilera datu orokorra 2015koaren aldean multzo desberdinarena delako, ez dira hitzarmenkide berdinak izan.

	Hizkuntza egoera		
	2016 hasieran	2016 amaieran	aldea
Merkataritza	%65,16	%68,66	3,5
Enpresa txikiak	%61,65	%62,26	0,61

Alkarteak	2016 hasieran	2016 amaieran	aldea
kirola	64,81	66,29	1,48
Kultura	81,78	82,26	0,48
Ongizate arloa	51,24	51,24	0,00
Emaita orokorra	65,94	66,59	0,65

- **Aldizkaria (berripapera) argitaratu da**, urtean zehar ale bat kaleratu da. Ikusi 3. eranskina.
- **Administrazioarekin** hitzarmenkideek mantentzen dituzten harremanetan euskararen erabilera areagotzeko konpromisoak finkatu dira bisitaldiak eginda (Udalarekin, Aldundiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin, INEM-Gizarte Segurantzarekin).



- **Begiraletza landu** da (kanpainak gizarte eragileengan duen eragina neurtzeko inkesta): gizarte esparru desberdinetako 12 erakunderen bitartez burutu da.
- **Kontseiluarekin eta Zirutagiriaren elkartearekin hitzarmenak** berretsi dira 2016rako eta bidezko sustapen lana egin Hitzarguneko hiru ataletan (merkataritza, enpresak, elkarteak)..
- **Sektorekako lan-taldea sortu:** Sektorekako lan-taldeak sortzeko lehenengo pausua eman da, hartara merkatori bakoitzaren beharretatik harago sektorearen premiei erantzuteko aukera lantzeko eta, batez ere, euskararen erabilera areagotzeko egin ditzakegun ekintza berritzaileak sortu asmoz. Legealdi berriko Toki Garapenerako Arduradunarekin batzartu eta kronograma bat finkatu da lan-taldea sortzeko.
- **Merkatari+bezero lan-taldea sortzea ez da izan posible.-** Merkataritzako bilgunea egonkortu ostean gauzatzea asmoa dago.
- **Komunikazio eta marketin plana.-** Komunikazio planaren helburu nagusia planaren inguruko sektoreko agente eta eragileei informazioa etengabe helaraztea da. Era berean, normalkuntzarako zerbitzu-eskaintza entitateen esku jartzea ere lortu nahi izan da urteko komunikazio planarekin. Lehenago aipatu dugun bezala, komunikazio eta marketin kanpaina irudi eta estilo berri baten inguruan antolatu nahi izan da, 2014an finkatutako oinarriak kontuan..
- **“Beharsarea” proiektua Busturialde mailan eratu,** Gernika-Lumoko eta Bermeoko udaletako Gazte Informazioa Bulegoak eta Urremendi erakundea bitarteko.
- **Komunikazio jarraitua.-** Urteko komunikazio ekintza jakinez gain, kanpainan parte hartu duten establezimenduekin komunikazio jarraitua bideratu da. Horretarako baliabide aproposa izan da Facebook, oso hedatua dagoelako.

Facebookeko kontua

Gaur egun sarea sozialen artean erabiliena den Facebooken lekua eduki du planak. Honen bidez, komunikazio jarraitua bideratu da. Bertan jaso dira: azken berriak, mezuak, hitzorduak eta argazkiak. Parte hartzen duten entitate guztiei Facebooken euskararen sustapenerako planaren lagun egiteko gonbidapena bidali zaie. Kontu honi esker elkarriketa etengabea



izan da, eta aldi berean urtean egin diren komunikazio ekintzak hedatzeko ere euskarri aproposa izan da.

Posta elektronikoa eta telefonoa

Facebook oihartzun handiko baliabidea izan arren, profil jakin batekoek ez dute erabiltzeko ohiturarik; beraz, ohiko bideak eskaini dizkiegu erabiltzaile horiei, posta elektronikoa izango da harremanetarako bide nagusia. Komunikazio ekintzen berri emateko bai bestelako iradokizun, ekarpen edo antzekoetarako erabiltzeko proposak dira posta elektronikoa eta telefonoa.

- **Sustapen plana.-** Sustapen jardueren helburu nagusiak: planeo partaidetza bultzatzea, herritarrak euskararen inguruan sentsibilizatzea, eta euskararen erabileran eragitea da. Era berean, normalkuntzarako zerbitzu-eskaintza herriko establezimendu, elkarte eta enpresen esku jartzea ere lortu nahi izan da sustapen planarekin. Sustapen planean bost ekintza nagusi jaso dira:

- Sustapen kanpaina
- Telefono mugikorretarako aplikazioa: erosketak egiteko
- Aritu: hizkuntza portaerak
- Berripapera eta aldizkari elektronikoa
- Oizmendi telebistan hilean behin saio bat antolatu da. Merkatari, enpresari eta elkarteetako kideekin.

- **Beste batzuk:**

- **“Kirola Euskeraz!”** kanpaina oinarri, inkesta berezia egin entrenatzaile eta begiraleei eta azken urteetan abian jarritako kontraste taldeak eratu elkarte bakoitzarekin. Honekin lotuta dago Alkarbideko D ereduko lan-mahaian egin den planteamendua, goi-erakundeen bitartez kirol federazioetan eragitekoa alegia. Hortik lortu da entrenatzaile ikastaro euskaraz eskaintzea.
- **Kultur eta aisi elkarteko kideekin azken urteetan eratutako bi kontraste taldeekin jarraitu da**, kanpainako sarea hedatu eta finkatzeko eta hitzarmengintza kanpainako beste ataletakoekin harremanak normalizatzeari begira. Euskaraz funtzionatzeko “beharrizana” sortu nahi izan da.
- **Ostalaritzan kanpaina puntuala: “mahai zapiak”.** Urriko azken astelehenaren atarian burutu zen eta ostalaritzako agente ugari hartu du parte.



3.2.- Jarduerak nork burutu dituen:

- **Euskara Zerbitzuak bere bizkar burututakoak:**

- Elkarrekin/Erakundeekin harremanak izan eta hitzarmena sinatzeko proposamenak landu.
- Motibazioa eta urteko helburuak landu hitzarmen-kide berri bakoitzarekin..
- Bai Euskarari ziurtagiriaren elkarrekin eta Kontseiluarekin hitzarmenak taxutu eta hitzarmengintzarekin uztartu (ziurtagiriaren sustapena,...).
- Zerbitzu iraunkorrerako eskaerei erantzun eta, behar denean, zerbitzu iraunkorrerako adjudikazioduna den Artez enpresarekin zubi lana egin.
- Enpresetako Euskara Planetarako lehenengo urratsak bideratu eta urteko diru laguntzak esleitu. (ikus 2. eranskina).
- Koordinazio batzarrak eratu eta kanpainaren betetze-mailaren segimendua egin.
- Urtean zehar burutuko den “Kirola euskeraz” azpiekintza bideratu (kirol federazioei lotutako Alkarbideko lan-mahaiaren dinamizazioa barru) eta hitzarmen-kide diren kirol elkarrekin dinamikarekin uztartu.
- Buruturiko lanei buruzko txostenak egokitu.
- Kanpaina puntualak burutu: “mahai zapiak”, Merkataria Elkartuekin hitzarmena gauzatu.

- **2008-2012 eta 2013-2016 epeetako zerbitzu-kontratua Artez enpresari adjudikatu zitzaizkion eta 2016an egin den berria ere Artez enpresari adjudikatu zaio.** Adjudikaziodunaren bitartez eta Euskara Zerbitzuaren zuzendaritzapean garatu diren kanpainaren eginkizunak:

- Hitzarmen-kide berri bakoitzari buruzko hizkuntza egoeraren diagnostikoa egin, beharizanak neurtu, Diagnostikoaren arabera hitzarmena egokitu eta baliabideak eskaini.



- Hitzarmenak guztiei urtean zehar bi sasoi berezitan (maiatza-ekaina eta azaroa-abendua) bisitaldiak egin, urtean zehar izan diren ohiko harremanetatik aparte.
- Hitzarmena sinatu dutenei zerbitzu iraunkorra eskaini (itzulpenak, errotulo edo kartel bereziak, hizkuntza aholkularitza, hiztegi elektronikoak, agiri-ereduak, agiriak.net, ikasare.net).
- HINAT neurgailurako datuak jaso eta prozesatu (txostena osatu).
- Kanpainaren begiraletzarako inkesta egin, hausnartu eta txostena osatu.
- Kirol elkarteetan inkesta burutu eta kontraste taldeak eratu. Kultur eta aisi elkarteetan atalean ere kontraste taldeak antolatu.
- Komunikazio planarekin komunikazio iraunkorarekin loturiko lanak bete.
- Lan guztiei buruzko txostenak egokitu eta Euskara Zerbitzuarekin ohiko koordinazio bilkurak egin bi hilabeterik behin.
- Enpresetako normalkuntza planen jarraipena egin.
- **Beste eragile batzuk “Beharsarea” egitasmoa abian jartzeko:** Gernika-Lumoko eta Bermeoko Udaletako Gazteen Informazio Bulegoatako arduradunak eta Urremendi Mendi Elkarteak arduraduna (azken hau Busturialdeko herri txikien izenean).

4.- BALORAZIO KUANTITATIBOA ETA KUALITATIBOA

Balorazio kuantitatiboa (enpresak)

Datu kuantitatiboak dira jarraian aipatzen direnak.

ENPRESA TXIKIAK (hitzarmenakide kopuruaren bilakaera)

Urtea	Egozan enpresak	Zarratu diranak	Kanpoan geratutakoak	Sartutako barriak	Guztira amaieran
2001	-	-	-	7	7
2002	7	-	-	2	9
2003	9	-	-	2	11
2004	11	-	-	11	22
2005	22	-	-	4	25
2006	25	1	-	6	30
2007	30	1	-	3	32



2008	32	-	-	4	36
2009	36	-	-	11	47
2010	47	-	-	2	49
2011	49	2	-	1	48
2012	48	-	-	-	48
2013	48	1	-	-	47
2014	47	-	-	-	48
2015	48	-	-	4	52
2016	52				51

- ✓ **Kanpainako partaide kopurua: 51**
- ✓ **Itzulpenak: 14**
- ✓ **Errotuluak: 6**

Kontuan hartu behar da merkataritza eta enpresa arloetako xede taldea, gorenetik jota, 1.300 ingurukoa dela, Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergaren epigrafe guztietan agertzen direnak batuta (enpresa, merkataritza mota guztiak, profesionalak, autonomoak,...) eta aintzat hartuta autonomo edo enpresa bera ere epigrafe desberdinetan jaso daitekeela. Beraz, xede taldearen estimazioa (enpresak gehi merkataritza) gutxi gora-beherakoa dugu: hitzarmenkide ditugu 235 (xede taldearen %18,08).

Aipatu behar da hitzarmenkideen artean esparru bakoitzeko ereduizkoak eta garrantzitsuenak daudela (langile kopuruagatik, herrian duten eraginagatik,...).

Balorazio kualitatiboa (enpresak)

Zerbitzuaren adjudikazioduna den Artez enpresaren Hinat neurgailua erabiltzen da emaitzak argitzeko. Bi urterik behin egiten da neurketa hori, suposatzen duen esfortzua aitzakia eta oraindik ez ditugu 2015eko datuak.

	2006	2008	2011ko abendua	2014ko abendua	2015eko abendua	2016ko abendua
Enpresa arloko erabilera	%49,88	%58,69	%55,76	%57,03	%61,52	%62,26

Beste adierazle batzuk	2005	2006	2007	2008	2009	2011	2016
Erabilera planak enpresetan	1	2	3	4	5	6	4
Eskainitako euskarri informatikoak	3	3	3	3	3	3	
Lan poltsetan dendarirako izena eman duten euskaldunak	-	-	-	11	-	-	
Lan poltsetan tabernarirako izena eman duten euskaldunak	-	-	-	9	-	-	

Ondorioak:

1.- Enpresa munduan emaitzak oso onak lortu ziren denbora gutxitan (2001etik 2011ra bitartean). 2001etik hona hitzarmenkide ditugun enpresa kopurua gehituz joan da urtetik urtera eta fideltasun/seriotasun handia erakusten dute. Erabilerak ere azkarrago egin izan du gora, baina azken urteetan apaldu egin da goranzko joera hori.

2.- Euskararen erabilera dela-eta, goranzko joera dago orokorrean. Enpresa munduan izandako aurrera pausuak askoz gehiago izan dira urteetan zehar, baina azken bolada honetan alderantzizkoa gertatu dela igarri dugu; merkataritza izan delako astindua. Agian, krisiak eragin handiagoa izan du enpresetan?

Aurrera begirako proposamena (enpresak)

Enpresa esparruan/lan munduan ekiteko bideari eutsi beharko diogu zintzo, bera delako hitzarmengintza bidez lorpenik handienak dituena. Hitzarmenak sinatzeaz gain, ereduak enpresetan Erabilera Planak txertatzearekin jarraituko da, zoritxarreko krisiari aurre eginda.

Aipatzekoa da Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak enpresetako Erabilera planetarako azken urteetan egin dituzten deialdietan gure udalerriko enpresa kopuru esanguratsua islatzen dela (5), arlo horretan egiten den ahaleginaren seinale.

Hitzarmena sinatzeak zerbitzu pertsonala eskaintzea dakar, aholkularitza zerbitzu pribatu batek emango lukeen gisara. Zerbitzuak/pausuak:

- Enpresaren diagnosia (hizkuntza paisaia, gaitasuna, baliabideak,...)
- Egoeraren arabera, hitzarmenean helburuak adostu urte bakoitzeko.
- Itzulpen zerbitzua eskaini.
- Aldi baterako kartel eta errotuloak doan egokitu.
- Kartel ereduak doan eskaini.
- Euskarazko euskarri informatikoen informazioa eskaini eta arruntenak doan egokitu.
- Enpresaren tamainaren arabera, bigarren urterako Erabilera Plana moldatzea proposatu (Euskara Zerbitzuak egiten du lehenengoz Erabilera Plan hori eta aurrerantzean Artez enpresaren zerbitzua euren kabuz hartzea daukate garapenerako. Artez enpresa bera arduratzen da Jaurlaritzako eta Aldundiko diru laguntza deialdietakoaz eta Udalak ere haiek emandakoaren arabera esleitzen ditu laguntzak).

Balorazio kuantitatiboa (merkataritza)

Hitzarmena sinatuta daukaten denda (184), enpresa txiki (51) eta elkarterekin (59) elkarlanerako tresna dugu "Hitzargune" kanpaina.



DENDAK

Urtea	Egozan dendak	Zarratu diranak	Kanpoan geratutakoak	Sartutako barriak	Guztira amaieran
2001	76	-	-2	10	84
2002	80	-	-6	5	79
2003	64	-	14	20	98
2004	98	5	2	9	100
2005	100	2	2	12	108
2006	108	7	-	15	116
2007	116	5	-	9	120
2008	120	2	2	4	120
2009	120	2	-	9	127
2010	127	1	-	5	131
2011	131	1	-	7	137
2012	137	1	-	4	140
2013	140	3	-	9	146
2014	161	3	-	27	185
2015	185	17	-	3	171
2016	170	3	-	17	184

✓ **Kanpainako partaide kopurua: 184**

✓ **Kartelak: 74**

✓ **Itzulpenak: 55**

✓ **Errotuloak: 184**

Kontuan hartu behar da merkataritza eta enpresa arloetako xede taldea, gorenetik jota, 1.300 ingurukoa dela, Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergaren epigrafe guztietan agertzen direnak batuta (enpresa, merkataritza mota guztiak, profesionalak, autonomoak,...) eta aintzat hartuta autonomo edo enpresa bera ere epigrafe desberdinetan jaso daitekeela. Beraz, xede taldearen estimazioa (enpresak gehi merkataritza) gutxi gora-beherakoa dugu: hitzarmenkide ditugu 235 (xede taldearen %18,08).

Aipatu behar da hitzarmenkideen artean esparru bakoitzeko ereduak eta garrantzitsuenak daudela (langile kopuruagatik, herrian duten eraginagatik,...).

Poztekoa: 2011koarekin alderatuta, hizkuntza aldaketak ia hirukoiztu egin dira merkataritza esparruan.



Balorazio kualitatiboa (merkataritza)

Zerbitzuaren adjudikazioduna den Artez enpresaren Hinat neurgailua erabiltzen da. Datuen irakurketa egiteko, kontuan hartu behar da 2006an 117 merkataritza/ostalari zirela hitzarmenikide eta 2010ean, oster, 131. Beraz, erabileraren datuak hitzarmenikideenak izanik, erlatiboak dira eta hitzarmenikide kopuruaren arabera hausnartu behar dira. Gainera, 2004an dendak eta enpresak batera neurtu ziren (ordutik aurrera neurtzeko desberdinak egin dira arlo bakoitzean).

	1993	2004	2006	2011	2014	2015	2016
Merkataritza arloko erabilera (hitzarmenikideena)	%38,35 58 denda	%53,99 100 denda eta 22 enpresa	%66,23 116 denda	%66,92 131 denda	%65,97 185 denda	%66,04 171 denda	68,66 184 denda

Beste adierazle batzuk	2005	2006	2007	2008	2009	2011
Eskaintako euskarri informatikoak	3	3	3	3	3	3
Lan poltsetan dendarirako izena eman duten euskaldunak	-	-	-	11	-	-
Lan poltsetan tabernarirako izena eman duten euskaldunak	-	-	-	9	-	-
Euskara hutsean + eleberaz aurkeztutako fakturak udaletxean	-	-	%20	-	-	%34,72

Ondorioak:

1.- Merkataritzan gora-behera gehiago dira (azken fasean garbiketa lan bat egin ondoren, 184 hitzarmenikide daude) enpresetan baino eta zailagoa egiten izan da aurrera jotzea urteetan zehar, baina azken urteetan merkataritzan astindua egon da eta erabileran eta ezagutzan gora egin du nabarmen.

2.- Erabilera altuagoa da merkataritzan (%68,66) enpresetan baino (%62,26) eta kaleko erabilera (2011n -%49) ere gaitu egiten da. Nabarmendu egin behar da azken hiru urteetan 47 denda eta taberna berri sartu direla eta gora egin duela indizeak nabarmen. Arrazoia, belaunaldi berriak sektoreaz jabetzen ari direla?

Aurrera begirako proposamena (merkataritza)

Hartutako bideari jarraituko zaio, hau da, borondatez Euskara Zerbitzuarekin lan egin nahi duten merkatariekin hitzarmena sinatu eta zerbitzu pertsonala eskaini, aholkularitza zerbitzu pribatu batek emango lukeen gisara. Zerbitzuak/pausuak:

- Saltokiaren/tabernaren diagnosia (hizkuntza paisaia, gaitasuna, baliabidea,...)
- Egoeraren arabera, hitzarmenean helburuak adostu urte bakoitzeko.
- Itzulpen zerbitzua eskaini.
- Aldi baterako kartel eta errotuluak doan egokitu.
- Kartel ereduak doan eskaini (merkealdikoak, eskaintza berezikoak,...).
- Euskarazko euskarri informatikoen informazioa eskaini eta arruntenak doan egokitu.

Balorazio kuantitatiboa (elkartek)

Hitzarmena sinatuta daukaten 58 elkarteekin elkarlanerako tresna dugu “Geure berbie euskeraz” Hitzarmengintza kanpaina.

ELKARTEAK

Urtea	Dagozan alkarteak	Sinatu daben taldeak	Sinatu ez dabenak	Desagertutakoak	Erantzun barik edo falta direnak
2004	72	37	6	3	26
2005	75	49	8	-	14
2006	75	51	-	-	12
2007	75	57	-	-	6
2008	75	57	-	-	6
2009	75	57	-	-	6
2010	75	57	-	-	6
2011	75	58	-	-	5
2012	76	59	-	-	59
2013	76	59	-	-	59
2015	76	59	-	-	59
2016	76	59	-	-	59

- **Partaideak: 59**
- **Itzulpenak: 43**

Nabaria da elkarteen atalean izandako lorpena: 76tik 59 ditugu hitzarmenkide, xede taldearen %77,33.



Balorazio kualitatiboa (elkartek)

Zerbitzuaren adjudikazioduna den Artez enpresaren Hinat neurgailua erabili izan da urte desberdinetan erabilera neurtzeko. Bilakaera ere ikus daiteke jarraiko koadroan (kontuan hartu behar da neurketak ez direla esparrukoak, baizik eta hitzarmenkide direnena. Dena dela, esparruan bizi dugun egoeratzat har daiteke, hitzarmenkide dugulako %77,33a eta barru daudelako garrantzitsuenak:

ELKARTE GUZTIEN erabileraren bilakaera (kultura, kirola, gaztedia, ongizatea):

	2001 urtea	2006 urtea	2007 urtea	2008 urtea	2009 urtea	2012 urtea	2014 urtea	2016 urtea
Ezagutza	%80	%82	%85	%85	--	%82,33	--	--
Erabilera	%52,04	%62,58	%64,12	%65,15	%63,50	%68,82	%65,79	66,59
						Barru %44,66 Kanpo %65		

KULTUR/gazte elkarten ezagutza eta erabileraren bilakaera (2006 eta 2007ko estimazioa)

	2001 urtea	2006 urtea	2012 urtea	2015 urtea	2016 urtea
Ezagutza	%86	%88	%91	---	---
Erabilera	% 56,50	% 72,76	% 87,69	%81,78	%82,26
			Barru %66 / Kanpo %91		

ONGIZATE elkarten ezagutza eta erabilera

	2001 urtea	2006 urtea	2012 urtea	2015 urtea	2016 urtea
Ezagutza	---	---	%84	---	---
Erabilera	---	---	% 55,73	%51,24	%51,24
			Barru %26 / Kanpo %47		

KIROL elkartearen ezagutza eta erabileraren bilakaera

	2001 urtea	2006 urtea	2012 urtea	2014 urtea	2015 urtea	2016 urtea
Ezagutza	%78	%80	%79	---	---	---
Erabilera	% 44	% 56,50	%63,05	%63,13	%64,37	%66,29
			Barru %42 / Kanpo %57			

Ondorioak:

1.- 2016ko datu orokorreari dagokienean, kontuan hartzekoa da **kirol elkartearen datua** (erabilera %66.29) 2001eko datua baino 21 puntu gehiago. **Poztekoa**, zeren erabilera elkartearen erabilera orokorrarekiko, eta batik bat kultur elkartearenarekiko, alde asko murriztu da. Kontuan hartzekoa, baina, **barruko erabileran dagoela hutsunea**.

2.- Kanpora begirako erabilera oso altua da kirol esparruan. Ezagutza datuarekin alderatuta, erabilera altua da, kaleko erabilera ere gaindituz (2011n %49). Zer egin asko dago oraindik kirol esparruan, eurentan herritarren partaidetza ugariagoa delako kultur elkarteetan baino eta, ondorioz, eraginkorrak ditugu kirol erakundeak gaur egun hizkuntza ohiturak finkatzerakoan.

3.- **Kultur Elkarteetan euskararen erabilerak bilakaera oso positiboa izan du 2014ra arte (%81,78)**, kirol Elkarteena baino bilakaera positibo bizkorragoa; urte horretatik aurrera, baina, egonkortu egin da erabilera eta muga jo duela ematen du. Dena dela, erreferente sendoa dugu kulturgintza euskararen erabilera areagotzeko.

4.- **Ongizate arloko elkarteak dira erabileran baxuen daudenak (%51,24)** nahiz eta ezagutza altua izan (%84). Nabaria da barruko erabileraren datu motela.

Aurrera begirako proposamena (elkarteak)

Hartutako biderei jarraituko zaio, hau da, borondatez Euskara Zerbitzuarekin lan egin nahi duten elkarteekin hitzarmena sinatu eta zerbitzu pertsonala eskaini, aholkularitza zerbitzu pribatu batek emango lukeen gisara. Zerbitzuak/pausuak:

- Elkartearen diagnosia (hizkuntza paisaia, gaitasuna, baliabidea,...)
- Egoeraren arabera, hitzarmenean helburuak adostu urte bakoitzeko.
- Itzulpen zerbitzua eskaini.
- Idazti ereduak egokitu.
- Kartel ereduak doan eskaini.



- Euskarazko euskarri informatikoen informazioa eskaini eta arruntenak doan egokitu.
- Kontraste taldeetan parte hartzeko gonbitea egin (batik bat kirol elkarteekin lantzen da, asertibitatea landu eta aurreiritziak baztertzea helburu).

Ahalegin berezia egin beharko da ongizate eta kirol arloko elkarteei begira.

5.- KRONOGRAMA

Urtarrila	● Komunikazio Plana finkatu / Kom. Iraunkrorerako ere ● Merkataritza eta ostalaritzako merkealdiko deiak ● Koordinazioa (Udala-Artez) ● Begiraletza ● Foroa / Bloga ● Hizkuntza aholkularitza ● Itzulpen zerbitzua
Otsaila	● Astelehenetako merkatu plazako hitzarmen kanpaina ● Koordinazio bilera (Udala- Euskalgintza- Kontseilua) ● Kirol lan-mahaia (Alkarbide) / jarraipena ● Prentsa artikulua: 2012ko balantzea eta 2013ko egitasmoa ● Foroa / Bloga ● Hizkuntza aholkularitza ● Itzulpen zerbitzua
Martxoa	● Merkataria+bezera lan-mahaia eratu ● Sektorekako lan-mahaia eratu ● Enpresa txikietako bisitak ● Kultur eta Aisi elkarteekin kontraste taldeak ● Prentsa artikulua ● Foroa / Bloga ● Hizkuntza aholkularitza ● Itzulpen zerbitzua
Apirila	● Enpresa txikietako bisitak ● Elkarteetako jarraipenak ● Kirol elkarteetako kontraste taldeak ● Foroa / Bloga ● Hizkuntza aholkularitza ● Itzulpen zerbitzua
Maiatza	● Merkataritza eta Ostalaritzako bisitak ● Koordinazio bilera (Udala-Artez) ● Foroa / Bloga

	- Hizkuntza aholkularitza - Beharsarea (web gunea) zabalkundea hasi - Itzulpen zerbitzua
Ekaina	- Enpresa txikietako bisitak - Elkarteetako jarraipenak - Prentsa artikulua - Berripapera (19. alea) - Foroa / Bloga - Hizkuntza aholkularitza - Beharsarea (web gunea) hedapen kanpaina amaitu - Itzulpen zerbitzua
Uztaila	- Urte erdiko balantzea - Koordinazioa (Udala-Artez) - Prentsa artikulua: sustapen jardueren informazioa - Motibazio kanpaina - Foroa / Bloga - Hizkuntza aholkularitza - Itzulpen zerbitzua
Abuztua	- Astelehenetako Merkatu plazako bisitak (jarraipenak) - Prentsa artikulua - Foroa / Bloga - Hizkuntza aholkularitza - Itzulpen zerbitzua
Iraila	- Udala / Merkatarien elkarte: hitzarmena gauzatu - Merkataritza eta ostalaritzako bisitak - Enpresa txikietako bisitak - Koordinazioa (Udala-Artez) - Ziurtagiria zabaldu (Udala-Euskaalgintza-Kontseilua) - Prentsa artikulua - Foroa / Bloga - Hizkuntza aholkularitza - Itzulpen zerbitzua
Urria	- Ostalaritzako mahai zapiak (kanpaina puntuala) - Enpresa txikietako bisitak

	● Elkartetako bisitak ● Kultur eta Aisi elkarteekin kontraste taldeak ● Ziurtagiria zabaldu (Udala-Euskaalgintza-Kontseilua) ● Foroa / Bloga ● Hizkuntza aholkularitza ● Itzulpen zerbitzua
Azaroa	● Aldizkaria ● Kirol elkartetako kontraste taldeak ● Hizkuntza tailerra ● Koordinazioa (Udala-Artez) ● Begiraletza ● Foroa / Bloga ● Hizkuntza aholkularitza ● Itzulpen zerbitzua
Abendua	● Merkataritza: merkealdira aurreko deiak ● Enpresa txikietako bisitak ● Elkartetako bisitak ● Abixadan ● Ziurtagiria banatu (Udala-Euskaalgintza-Kontseilua) ● Foroa / Bloga ● Enpresetako Euskara Planetarako diru laguntzak esleitu ● Hizkuntza aholkularitza ● Itzulpen zerbitzua

6.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

Eragileak:

- Euskara Zerbitzua: kanpainaren antolaketa, koordinazioa, harreman zuzenak, dinamizazioa eta zabalkundea.
- Kultur Etxea: azpiegitura (zerbitzuaren kokalekua) eta zabalkundea.
- Artez enpresa (aholkularitza eta laguntza teknikoa).
- Urdaibai Rugby Eskola, kanpaina berezietarako begiraletza.
- Gizarte Erakundeen Kontseilua (hitzarmena bitarteko, Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean): merkataritza eta enpresetarako ekintzak.
- Ziurtagiriaren elkarte (Bai euskarari ziurtagiriaren sustapenerako)
- Euskalgintzako eragileak (Busturialdean euskaraz bizi Elkartea,..., Kontseiluaren urteko ekintzak dinamizatzen laguntzeko)
- Gernika Merkatarikari elkarteak: hitzarmenaren bidez, bazkideekiko zubiak jorratu.

Giza baliabideak:

- Euskara Zerbitzua: HNT teknikaria eta kanpainarako dinamizatzailea.
- Busturialdean euskaraz Bizi (begirale bat).
- Artez enpresa (aholkularitza zerbitzuaren adjudikazioduna): koordinaziorako teknikaria, itzulpen zerbitzua eta kanpainako arduretarako teknikaria.
- Urdaibai Rugby Eskolako 6 begirale kanpaina berezietarako.
- Merkatarikari elkarteak: merkataritzako teknikaria

Diru baliabideak.- Euskara Arloak 2016ko udal aurrekontuan izan dituenak.



7.- AURREKONTUA - GASTUAK

Gastuak

Zerbitzu-kontratazioa: aholkularitza, teknologia baliabideak (agiriak.net, ikasare.net, ikastaroak), HINAT neurgailua, zerbitzu iraunkorra (itzulpenak, eredu-egokipenak, errotuloak), txostenak,	33.532,32
Euskara Zerbitzuak kontrataturiko dinamizatzaila: Kanpainaren dinamizazioa (bisitak) eta motibazioa landu, datu bilketa (HINATerako eta diagnostikorako), zerbitzu iraunkorrerako zubi lana, lanari buruzko txostenak egitea.	21.958,08
Geure berbie euskeraz (berripaperaren ale bat inprimatu eta banatzea)	765,69
Beharsarearen zabalkundea	530,94
Bai Euskarari Ziurtagiria (hitzarmenkideekin partekatutako ziurtagirien banaketarako jaialdia; ziurtagirien banaketa, diru-laguntza eta sariak; sentsibilizazio kanpaina herritarrei eta hitzarmenkideei bereziki)	3.594,01
Enpresetako Euskara Planetarako diru laguntzak	10.000,00
Errenta aitortpenaren kanpaina (banketxeak)	829,46
Ostalaritza (mahai zapiak)	992,20
Kirola euskara (Abixadan lasterketa)	300,00
Beste gatu batzuk	424,68
GASTUAK GUZTIRA	72.927,38

Diru sarrerak

Bizkaiko Foru Aldundiaren diru laguntza	5.585,93
Jaurlaritzaren diru laguntza (2015koa eta 2016koa)	17.495,00
Diru sarrerak guztira	23.080,93

Defizita

Gastuak guztira	72.927,38
Diru sarrerak guztira	23.080,93
Defizita	49.846,45

Gernika-Lumon, 2017ko urtarrilean.

Marisa Aldamiztxebarria
Euskara Arloko Zinegotzia

Bittor Zarrabeitia
Hizk. Normalizaziorako Teknikaria



1. eranskina

Artezen enpresaren memoria - 2016



2. eranskina

**Enpresetako Euskara Planetarako diru laguntzen
esleipena (2016koa).**



3. eranskina

Berripapera - 2016



4. eranskina

Azpi-ekintzetarako erabilitako materiala



5. eranskina

Gastuen frogagiriak

